Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## BIZKAIKO ARTISAU ENTITATEEN ERREGISTROAN ALTA EMATEKO PROZEZUA:

### 1. Alta eskabidea hasi aurretik, baieztatu baldintza guztiak betetzen dituzula

- ✓ Artisau-jarduera bat edo gehiago egitea (ikusi jardueren zerrenda hemen).
- ✓ Artisautza zure lanbide-jarduera nagusia izan behar da.
- ✓ Helbidea Bizkaiko udalerriren batean izatea.
- ✓ Artisau-lana egiten duzun tailerra Bizkaian egon behar da.
- ✓ EJZn (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) alta emanda egotea, zure artisau-jarduerarekin bateragarria den epigrafe batean.
- ✓ Gizarte Segurantzan alta emanda egotea

### 2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean sartu

Bulegoan sartzeko klikatu hemen. Dagokion identifikazio-txartelaren bidez Identifikatzeko eskatuko dizu (NAN elektronikoa, B@KQ txartela eta abar).

Oraindik identifikazio-biderik ez baduzu, esteka honetan B@KQ txartelaren eskabide-puntuak aurkituko dituzu. Bizkaiko Foru Aldundiaren bulegoren batean B@KQ eskatzeko, hitzordua eskatu beharko duzu 944068000 telefonoan.

### 3. Eskabidea aurkeztu

Bulego birtualean sartu ondoren, NIRE ENTITATEAK >>Bizkaiko Artisau-Entitateen Erregistroa>> Artisau entitateen alta/kontsulta/aldaketa aukerak hautatu eta eskaerari ekingo diogu.

## PROCESO DE ALTA EN EL REGISTRO DE ENTIDADES ARTESANAS DE BIZKAIA:

### 1. Confirma que cumples todos los requisitos antes de comenzar la solicitud de alta

- ✓ Desempeñar una o varias actividades artesanas (ver listado de actividades aquí).
- ✓ Tener como actividad profesional principal la artesanía.
- ✓ Tener el domicilio en algún municipio de Bizkaia.
- ✓ Tener el taller donde realizas la actividad artesana en Bizkaia.
- ✓ Estar dado de alta en el IAE (Impuesto de Actividades Económicas) en un epígrafe compatible con tu actividad artesana.
- ✓ Estar dado de alta en la Seguridad Social

### 2. Accede a la Oficina Virtual del Departamento de Promoción Económica

Para entrar en la oficina pincha aquí . Te pedirá que te identifiques a través del medio de identificación correspondiente (DNI electrónico, tarjeta B@KQ, etc.).

Si aún no dispones de ningún medio de identificación, en este link encontrarás los puntos de solicitud de la tarjeta B@KQ. Para solicitar la B@KQ en alguna de las oficinas de la Diputación Foral de Bizkaia, necesitarás solicitar cita previa en el teléfono 944068000.

### 3. Presenta la solicitud

Una vez hayas accedido a la oficina virtual, selecciona la pestaña MIS ENTIDADES>>>Registro de Entidades Artesanas>>>Alta/Consulta/Modificación de Entidades Artesanas y comienza a rellenar la solicitud.




Atal honetan 5 URRATS bete behar dira, datu pertsonalekin eta zure negozioari buruzko informazioarekin.

Informazio guztia betetzen duzun bitartean, kontuan izan zirriborro bat gorde daitekeela eskabidearekin beste une batean jarraitzeko.

Eskaera egiteko laguntza behar izanez gero, kontsultatu fitxategi hau: “Alta eskabidea urratsez urrats”.

## 4. Itxaron zurekin harremanetan jarri arte bisita bat hitzartzeko

Eskabidea jaso ondoren, BEAZ foru erakundea zurekin harremanetan jarriko da bisita bat egiteko, zure lan-teknikak ezagutzeko eta dagokion txostena idazteko.

## 5. Jakinarazpena jaso:

Eskaera aurkezten denetik 3 hilabete baino gutxiagoko epean, ebazpenaren Foru Agindua jasoko duzu egoitza elektronikoaren bidez. Alta onartuz gero, ez da karnetik emango, Foru Agindu horretan zure artisau entitatearen zenbakia agertuko da. Gainera, edozein unetan sar zaitezke Bulego Birtualean eta artisau-entitateak erregistratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri bat deskarga dezakezu.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, hemen kontsulta dezakezu erregistroa arautzen duen araudia edo 944068059/944068038 telefono-zenbakietan jar zaitezke gurekin harremanetan.




En este apartado hay que completar 5 PASOS, con datos personales e información sobre tu negocio.

Mientras completas toda la información ten en cuenta que es posible guardar un borrador para continuar la solicitud en otro momento.

En caso de necesitar ayuda para presentar la solicitud, consulta el archivo “Solicitud de alta paso a paso”.

## 4. Espera a que contacten contigo para concertar una visita

Una vez recibamos tu solicitud, la entidad foral BEAZ se pondrá en contacto contigo para hacerte una visita con el fin de conocer tus técnicas de trabajo y emitir el correspondiente informe.

## 5. Recibe la resolución

En un plazo inferior a 3 meses desde la presentación de la solicitud recibirás la Orden Foral de resolución por sede electrónica. En caso de aceptarse el alta, no se entregará ningún carnet, en la Orden Foral se indicará tu número de entidad artesana. Además, en cualquier momento puedes entrar en la Oficina Virtual y descargar un certificado donde se acredita que la entidad artesana se encuentra registrada.

Para información más detallada puedes consultar la normativa que regula el registro aquí o puedes contactarnos en el 944068059/944068038.